

HEZKUNTZA

# Ikastolen argazkia osatze bidean

2008-09 ikasturtearen amaiera gazi-goza izan zen ikastola mugimenduarentzat. Urtebeteko lanaren ondoren, aspaldiko nahia bete ahal izan zuten: Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba sortzea. Baina erabateko poza izan behar zuena ika-mikak lokaztu zuen. Pixkanaka urak beren onera datozela esan daiteke orain, zenbait arazo konpontzeke dauden arren.

Unai Brea

Argazkiak: Dani Blanco

JOAN DEN EKAINEAN ikastolek burutu zuten berrantolaketa prozesua ez da atzo goizean norbaiti bururatutako zerbeit. Urteak dira hala egiteko asmoa zutela, baina ezin izan dute aurten arte gauzatu, hainbat arrazoi direla medio. 90eko hamarkadaren erditik, ikastolen barruan antolamendu-ereduari buruzko eztabaida egon da, eta udan azaleratu ziren liskarrek badute zerikusirik debate historiko

horrekin. Baina ez da arrazoi bakarra, ezta gutxiago ere: antolamenduak garrantzia dauka, baina botere banaketak ere bai. Ardura-karguetan zein pertsona dauden, uler bedi.

Ekainaren 13an Zamudion egingako batzarrean ikastolek erakunde berria sortzea adostu zuten, bai gehiengo zabalaz adostu ere. Izen ofiziala Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba izango du,

baina egunerokotasunean jarduteko marka laburragoa erabiliko dute: Euskal Herriko Ikastolak. Ez zen hura izan han hartutako erabaki bakarra. Elkarte berria sortzeaz gain, elkarte horrek datozen urteetan izango dituen zereginak ere finkatu ziren.

Zamudioko batzarrean lau gairi buruzko bozketa egin zen, eta hirutan ia erabateko adostasuna izan zen, aldeko botoen kopurua %98tik

Tolosako Leidor antzokian aurkeztu zituzten Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba berriaren Artezkaritza Batzordea eta Zuzendaritza, irailaren 26an egindako ekitaldian. Organo batean zein bestean, Nafarroako zenbait ordezkari sartzeke daude oraindik.



gorakoa izan baitzen. Honenbestez, orain dela lau hamarkada sortu zirenetik lehenbiziko aldiz, Euskal Herriko ikastola guztiak entitate juridiko bakarrean bilduta egongo dira. Bost lurraldeetako federazioek –Iparralde lurralde bakartzat hartuz– osatutako konfederazioa erakunde bakarra zen *de facto*, baina ez legearen aurrean. Bestalde, erakunde berria kooperatiba da; horrek esan nahi du ikastola bakoitzak izango dela bertan bazkide, federazioen bitartekaritzarik gabe.

Zamudion egindako laugarren bozketak elkarte berriaren estatutuei oniritzia ematea zuen helburu, eta hor ere aise gailendu zen baiezkoa: %80. Hala ere, beste %20 hori aski arrakala handia izan zen hurrengo asteetan hedabideen bidez jarraitu ahal izan genuen adierazpen uholdeari pasatzen uzteko. Besteak beste, Nafarroako ikastola gehienek ezezko bozka eman zutelako.

Batzarra egin eta egun batzuetara, ikastolen mugimenduan goi-karguak izan dituzten zenbait pertsonak –Antonio Campos, Xabier Azanza edo Jose Ramon Zubizarreta, batzuk aipatzearen– eskutitz bat igorri zuten *Deia* egunkarira. Besteak beste, esan zuten ikastolen

kooperatiba berriaren estatutuak ez zirela onartuak izan Zamudioko batzarrean, eta Ikastolen Konfederazioko lehendakariari leporatu zioten hori hedabideei ezkutatu izana. Eman zuten argudioa zen Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) ezezkoa eman zela estatutu

### Desadostasunaren muinean botere banaketa eta antolamendu eredua daude

horiei –zehazki, nafar ikastolen %82k bozkatu zuen kontra–, eta ikastolen barne-araudiaren arabera nahitaezkoa dela federazio guztiek aldeko botoa ematea Asanblada Orokorrak zerbait onartzeko. Koldo Tellituk –lehen Ikastolen Konfederazioko presidente, eta orain Europar Kooperatibarena– erantzun zien Zamudiokoa ez zela Asanblada Orokorra izan, Ikastolen Batzarra baizik, eta horietan erabakiak ikastola guztien gehiengoz hartzen direla. Ekitaldiaren prestatze-fasean Konfederazioak ikastoletara igorritako dokumentazioan behatu

ahal izan dugunez, zuzenak dira Tellituren azalpenak.

### Nafarrak momentuz kanpoan

Nondik zetorren nafarren desadostasuna? Itxura guztien arabera, eta horretan bat datoz liskar honetako alde biak, ekainaren 13aren aurreko azken egunetan okertu ziren gauzak, maiatza erdira arte behintzat prozesua ezin hobeto baitzihoan. Aldez aurretik onartutako prozedurari jarraituz, lurralde bakoitzean hiru ikastola aukeratu ziren, aho batez, Europar Kooperatibaren lehenengo Artezkaritza Batzordea osa zezaten. Zamudioko ekitaldian bertan, ikastola horiek gauzatu zuten kooperatibaren sortze-ekimena, baina ez ziren aurreikusitako hamabostak izan, Nafarroako hiruretatik bakarra sartu zelako. Beste biek, prozesua gauzatzeko moduarekin desadostasunak zirela-eta, kanpoan gelditzea deliberatu zuten, eta kanpoan jarraitzen dute gaur.

Esan behar da, prozedura behar bezala ulertze aldera, aurrena ikastola bakoitzak kooperatibako kide izan nahi duen ala ez erabaki behar duela. Ekainaren 13a baino lehenago gutxik zeukaten urrats hori emana; horien artetik aukeratu





Ikastolen Etxea, Donostian. Bertako langileengan ondoeza zabaldu da. Kooperatiba berriaren zuzendaritza osatzeko garaian bazterrean utzi dituztela da haien kexa.

zituzten gerora elkarte berriaren fun-datzaileak izango zirenak. Gaur egun, Euskal Herriko ikastolen erdiak baino gehiagok onartu du kooperatibaren kide izatea, eta orain-goz bakar batek ere ez du ezetz esan. Hori bai, prozesua izoztuta dago Nafarroan.

Kooperatiba berria eratzeaz ardu-ratuko ziren ikastolak aukeratu ahala, Nafarroan desadostasuna sortu zen. Nolabait esatearren, ikastola nafar gehienei ez zitzaien gustatu eratzear zegoen Artezkaritza Batzordearen “kolorea”. Antonio Campos Ikastolen Konfederazioko presidente ohiak ARGIARI egindako adierazpenen ara-bera, “hasieran aukeratu ziren hama-bi ikastola horietatik, ez dut esango denek, baina bai gehienek, argi eta garbi presidentearen esanak beteko dituzte; eta tira, horrela egin behar bazen, egin behar zen, baina horrek bazeukan behin-behineko izatea. Baina ez, bat-batean erabaki potolo-lak hartzen hasi dira; zuzendaritza izendatzea, besteak beste”. Camposi susmo txarra eragiten dio gauzak presaka egin izanak, gutxienez ikas-tola guztiak kooperatibako kide izan arte itxaron gabe. Uste horrek berak

gidatu zituen nafarren pausoak. Pro-zesua azkarregi egiten ari zelakoan –eta Artezkaritzaren konposaketa beren gustukoa ez zela izango jabe-tutakoan–, mahai gainean jarri zuten erritmoa moteltzeko eskaria.

#### Filosofia bi aurrez aurre

Gauzak horrela, ekainaren 13ko batzarrerako emendakin bat aurkez-tu zuten Nafarroako ikastola batzuek. Koldo Tellituk zuzendari kargurako izen berriak proposatuko zituela jakitun, nafarrek eskatu zuten ordura arte Ikastolen Konfederazio-an egondako Artezkaritza nahiz Zuzendaritzaren konposaketa beste hiru urtez mantentzeko, denbora tarte horretan haiek eraman zezaten kooperatiba berriaren lema. Batza-rrak ez zuen emendakina onartu, eta horrek eragin zuen nafar gehienek estatutuen aurkako botoa ematea.

Honenbestez, ika-mikaren iturria ikastoletako ardurak banatzean era-bilitako prozedura litzateke. Baina oso bestelako iritzia bildu dugu ikas-tolen zuzendaritzatik oso hurbil dagoen ahots batetik (bere izena ez aipatzeko eskatu digu). Haren uste-tan, kontuok aitzakia hutsa dira eta

horren froga da udan haizatutako argudioak berez itzaltzen joan direla, banan-banan. “Honen atzean dago-en arazoa da erakundearen egitura berriak ez diela mesede egiten nafar-rei, honezkero ez delako beharrez-koa federazio guztien kontsentsuz hartzea erabakiak; ikastola bakoitzak bere ahotsa izango du”. Federazio guztiek erabakiak aho batez hartu behar izate horrek ahalbidetu die nafarrei iraganean beto eskubidea gauzatzea, iturri beraren hitzetan.

Hasieran esan dugunez, ikastolen funtzionamendu-ereduari buruzko eztabaida bizi-bizi egon da azken hamabost urteetan. Kooperatiba gai-lendu da, bistan dena, eta haren alde-koen iritziz beti ere, nafarrek beste eredu bat defendatzen dute. Hain zuzen, orain arte indarrean egon dena, non federazio bakoitzak botere handia zeukan. Azken buruan, filo-sofia bi daude antolatzeko modu des-berdin horien atzean, kooperatibako zuzendaritzatik adierazi digutenez. Bataren arabera, ikastolek eragile sozialak izan behar dute batez ere, eta besteak, berriz, zerbitzu-enpresen frankizia modura ikusten ditu. Lehe-nengoa atera da garaile.

Bitxia bada ere, nafarrak dira behin ere gai honi buruzko adierazpen publikorik egin ez duten alde bakarra. Eta hala segitzen dute. Euskal Herriko Ikastolak erakunde berriaren Artezkaritzak zein Zuzendaritzak jarrera bera agertu dute uda ondotik, nafarrekin adostuta. Diote-nez, aurrera begiratzeko garaia da, eta bestalde, ekaineko desadostasunak ia gaindituztat eman daitezkeela adierazi dute behin eta berriz. Nafarrek, ekaineko gertakariak eta gero erabaki zuten hedabideen aurrean mutu egotea, "haustura handiago bilaka ez zedin", nahiz eta herrialdeko ikastolen erdiek prentsan salatu nahi zuten Konfederazioaren jarrera. Ez da hala izan, eta gaur egun hiru puntuko adierazpen laburra besterik ez dute agertzen kazetarien aurrean. Guk Pello Mariñelarena federazioko zuzendariaren ahotik jaso dugu: "Batetik, une hau ez da aproposena Nafarroako ikastolak kooperatiba berriaren bazkide bihurtzeko. Bigarrenik, Nafarroako ikastolak zubiak eraikitzeke lanean dihardugu, diferentziak gainditzeko asmoz. Eta azkenik, Nafarroako ikastolak oso garbi daukagu gure marko naturala Euskal Herriko ikastolak direla, eta hori, gaur egun, Europar Kooperatiba da, lehen Ikastolen Konfederazioa zen bezala". Kontsultatutako ia iturri guztiak bat datoz konponketa hurbil dela. Euskal Herriko Ikastolentzat, "iraganeko kontuak dira hauek". Prozesua blokeatuta dago Nafarroan, baina ez luzerako, haiei kasu egitera.

Zertarako orduan hainbesteko zalaparta? Seguruenik, liskar hauek ez zuketean hain oihartzun handia izango ezker abertzalearen mamua agertu ez balitz. Baina agertu egin zen. Hedabideetara filtratutako txosten bat medio, aipatutako desadostasunak ezker abertzalearen estrategia batekin lotu ziren. Zehazki, ezker abertzaleak ikastolen ildo zuzentzeko estrategia baten aurreko erreakzioa izango zatekeen nafarrena, hala nola lehenago aipatu dugun Antonio Campos eta gainerako kargu ohien gutuna. Koldo Tellituk horri buruzko esplikazioak eman zituen komunikabideen aurrean, uztailean. Ikastoletan pentsamolde guztietako jendea dagoela gogorarazi zuen, eta

batez ere azpimarratu egin zuen filtratutako txosten hartan ezker abertzaleak egindako proposamenak ez direla gauzatu ikastolen geroko bilakabidean. Gaurdaino, inork ere ez du pisuzko argudio bakar bat ere eman teoria hori susten-gatzeko, zenbait karguk -esaterako, LABeko abokatu den Tellituk berak- ezker abertzalearekin duten lotura ez bada. Ezin daiteke esan ez filosofian, ez pedagogia-ildoetan, ez bestelako arloetan, ikastolak ezker abertzalearen nahietara makurtu direnik.

**Ikastolen Etxean ondoeza**  
Zuzendaritza berriko pedagogia arduraduna Abel Ariznabarreta da, Anjeles Iztueta EAeko Hezkuntza sailburu zenean, haren lantaldean ibilitako gizona. Ikastolen mugimenduaren kanpotik dator, eta hura izendatu izanak ere hautsak harrotu ditu. Ekainean sortutako polemikaren beste adarra aipatzera garamatza honek, nafarrena ez baita auzi bakarra izan. Antza, haiek baino minduago suertatu dira prozesu honetan Ikastolen Etxeko -Gipuzkoako Federazioaren egoitza- langileak. Urteetan, eta pedagogiaren arloan batik bat, ikastolak hezkuntza munduan erreferentzia bihurtzea lortu duten profesionalak dabil-tza hor, eta orain baztertuta sentitzen dira. Ezin dugu askoz gehiago esan honi buruz, Euskal Herriko Ikastolen isiltasunari Ikastolen Etxeko ordezkariena gehitzen zaiolako, momentua kritikoa dela onartu diguten arren. Afera hau ere konpontzeko bidean egon litekeela esan digu ikastolen munduko iturri batek, baina hori horrela denik ez da nafarren kasuan bezain ziurra. ▀

**Vitoria-Gasteiz**  
**Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:**

**UDAL LIBURUTEGI SAREA**  
Ipar gazt, hego geza. Bizibida (gazte eta helduentzat)  
Azaroak 26. Iparralde GE, 19:00.  
Kamishibai ipuin japoniarrak. Ipuin kontalaria (5-8 urte)  
Abenduak 1. Lakua GE, 18:00.  
Zergatik dago hainbeste harri ibalen ondoan. Kamishibai teknika eta eskulana. (5-7 urte)  
Abenduak 3. Ariznabarra GE, 18:00.  
Planeta, ilargi eta konstelazioen lantegia (6-12 urte)  
Abenduak 10. Pilar GE, 18:00.  
Argi heziak-ezinezko eginkizuna-laserrak. Lantegia (6-14 urte)  
Abenduak 12. Iparralde GE, 11:30.  
Otsa tonto-tontoak. Ipuin kontalaria (3-8 urte)  
Abenduak 16. Aldabe GE, 18:00.

**ZINEMA EUSKARAZ**  
IRUDI TXOKOA  
3. 10 tren. Azaroak 27. Aldabe antzokia, 19:45.  
Dohainik.  
ESTREINALDIK EUSKARAZ  
Igelak eta apoak. Abenduak 11. Guri zinemetan.

**LEHIKETAK**  
Haurrentzako VI. Ipuin Lehiaketa  
Kategoriak: 6-7 urte, 8-10 urte eta 11-14 urte  
Aurkezteko epea: abenduaren 18ra arte  
Non: Udal sareko edozein liburutegitan  
Ipuin eta kontakizun laburren XVI. lehiaketa  
14 urtetik 35era bitarteko gazteentzat  
Aurkezteko epea: abenduaren 18ra arte  
Non: Udalaren Argibide eta Erregistro bulegoan  
CRASH 09 Gazteentzako komikien lehiaketa  
Aurkezteko epea: abenduaren 3ra arte  
Non: GAUEKOAK  
Erremetan kalea 74 behe 01001 Gasteiz

**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAREN KONTRAKO  
NAZIOARTEKO EGUNA. AZAROAK 25**  
Eutzi taldearen eta Moira abeslariaren kontzertua  
Azaroak 21. Judimendi GE. 20:00etan

**OLENTZERORENTZAKO GUTUNAK  
JASOTZEKO POSTONTZIA**  
Abenduaren 14tik 23ra. Goliuri jauregia.  
Astegunetan: 09:00-21:00.  
Abenduak 19. larunbata eta 20. igandea: 11:00 - 14:00 eta 16:00-21:00

**EUSKARAREN EGUNA. ABENDUAK 3.**  
Vitoria-Gasteiz Saria  
Haur eta gazte literaturako itzulpenik onenen sari banaketa  
Euskarazetamof antzerki lana  
Abenduak 3. Principal antzokia. 20:30. Sarrerak dohainik.  
Jaso zure gonbidapena GAUBen (Espainia plazaren behekoetan), azaroaren 26tik aurrera.

**ETORRI ETA GOZATU GUREKINI**

 Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala